IES Durango BHI

2026 AVATAR Euskadi
Datuen Herrian Estatistika Aurkitzen

24. KORRIKAren ibilbidearen diseinua TSP probleman oinarrituta: programazio linealaren bidezko optimizazioa

Egileak:

Naroa Aranburu Rementeria
Ander Asensio García
Goiatz Gaztelurrutia Simon
Ane Gonzalez Gil
Izan Saiz Zorrilla

Tutorea:

Unai Mendiguren Martin

2026ko apirilean

Laburpena

Proiektu honetan Korrikaren ibilbidea ikuspegi matematikotik aztertuko dugu. Bi urtean behin, Korrikak Euskal Herri osoa zeharkatzen du euskararen alde, 200 herri eta hiri baino gehiagotik igaroz. Honek erronka interesgarri bat planteatzen du: nola lor daiteke herri kopuru jakin bat lotzen duen ibilbidea ahalik eta laburrena izatea? Optimoa al da Korrikaren ibilbide ofiziala? Eta, hala ez bada, ba al dago hori hobetzeko modurik?

IKERKUNTZA OPERATIBOKO lan honetan, oinarri teoriko gisa hartuko dugu TRAVELLING SALESMAN PROBLEM (TSP) deritzon problema, puntu multzo bat bide laburrenaren bidez lotzea helburu duena. Gure kasuak, baina, badu zailtasun gehigarri bat: puntuak (herriak) ez ditugu lerro zuzenekin lotuko, baizik eta benetako errepideekin. Horrek behartuko gaitu mapa-, nabigazio- eta geolokalizazio-APIak erabiltzen, GOOGLE MAPS bezalako zerbitzuek erabiltzen dituztenen antzekoak.

Erronka honi aurre egiteko R programazio-hizkuntza baliatuko dugu, datuak antolatzeko eta ibilbide posibleak kalkulatzeko. Helburua proposamen matematiko bat garatzea da, herri nagusi guztiak zeharkatzen dituen ibilbide eraginkor bat lortzeko. Azkenik, lortutako emaitza Korrikaren ibilbide ofizialarekin konparatuko dugu, bi proposamenen arteko diferentziak aztertzeko.

Hitz gakoak: Korrika, TSP, Programazio Lineala, HERE TECHNOLOGIES, Optimizazioa, R programazio-lengoaia.

Abstract

Zuentzako.

Keywords: Korrika, TSP, Linear Programming, HERE TECHNOLOGIES, Optimization, R programming-language.

Aurkibidea

Taulak

Irudiak

1. Marko teorikoa

1.1 Korrika

Korrika bi urterik behin Euskal Herrian zehar lasterka egiten den euskararen aldeko ekimen garrantzitsuenetakoa da. Pertsona helduen euskalduntzea eta alfabetatzea eginkizun daukan AEK erakundeak (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak) antolatzen du, euskararen aldeko kontzientzia pizteko eta euskaltegietako eguneroko lana indartzeko dirua biltzeko.

11 egun inguru behar izaten dira lurralde osoa zeharkatzeko. Urtero ibilbidea aldatu egiten da, baina 2.300 kilometro ingurukoa izaten da beti. Korrikaren hasieratik bukaeraraino, korrikalariek eskuz esku eta kilometroz kilometro lekuko bat eramaten dute helmugaraino, eta horren barruan gordetzen da Korrikaren amaieran irakurriko den euskaldun ezagun batek idatziriko mezua.

Lehenengo Korrika 1980. urtean burutu zen, diktadura frankista amaitu eta, urte gutxitara, euskaldunak euskaraz alfabetatzeko beharrezkoa zen dirua biltzeko xedea zuen ekimena sortu zen: Korrika. Izan ere, frankismoak erabat zapaldu zuen euskaldun nortasuna.

Aurten, 2026ean, Korrikaren 24. edizioa martxoaren 19tik 29ra kokatuko da, eta Atharratzetik (Zuberoatik, alegia) Bilbora joango da. Izan ere, Korrikako lasterketetako irteera eta helmuga gisa hiri desberdinak izendatzen dira urtetik urtera.

Lan honen helburua ahalik eta herri gehien bilduko dituen ibilbidea sortzea da, 11 eguneko eta 2300 kilometroko bidea osatuz. Bidea Atharratzen hasi eta Bilbo amaituko da.

Hauek dira aurreko urteetako Korrikaren azken hiru edizioak (ibilbideak beti desberdin):

Irudia 1: Korrikaren azken 3 edizioetako ibilbideak

Edizio guztietan Korrikak Euskal Herriko hiri eta herri nagusienak zeharkatzen ditu. Normalean, 3.000 biztanletik gorako herri guztietatik igaro egiten da, baina edizio batzuetan munta handiko herri batzuetatik ez da igaro izan.

Esate baterako 22. edizioa ez zen Oñatitik (11.500 biztanle) edo Legazpitik (8.400 biztanle) igaro, ezta Urduñatik (4.200 biztanle) edo Orozkotik (2.700 biztanle) ere.

Irudia 2: Korrikaren 22. edizioaren ibilbideen zatiak

Ibilbidea optimizatuz gero, posible litzateke herri-kopuru gehiago barne hartzea ibilbidearen kilometro kopurua mantenduz? Horixe izango da, hain zuzen ere, gure lanaren helburua.

1.2 Programazio Lineala eta Programazio Osoa

Programazio lineala optimizazio problema matematiko bat da, horren bidez, helburu funtzio lineal bat minimizatu edo maximizatu egiten da aldagai batzuen menpe baldintza linealez osatutako murriztapen sistema baten barne. Baldintzak grafiko batean irudikatzean, amankomunean daukaten eremuari sistemaren soluzio-eremua edo eskualde egingarria deritzo, eta bertan baldintza guztiak betetzen dira eta inekuazio sistemaren soluzio posible guztiak daude.

Behin soluzio eremua jakinda helburu funtzioa minimizatzeko edo maximizatzeko eskualde egingarriaren erpinak kokatu behar dira, bertan aurkitzen baitira maximoak eta minimoak. Puntu horiek helburu-funtzioan ordezkatuz jakingo da zein den soluzioa, hau da, emaitza optimoa (maximoa edo minimoa), hori da programazio linealaren helburua.

Programazio linealaren enuntziatu estandarra, honako hau da:

$$x_1, x_2, \dots, x_n \text{ aldagaiak izanik,}$$

$$\text{minimizatu } z = c_1x_1 + c_2x_2 + \cdots + c_nx_n \quad \text{non:}$$

$$\begin{aligned} a_{11}x_1 + a_{12}x_2 + \cdots + a_{1n}x_n &\le b_1 \\ a_{21}x_1 + a_{22}x_2 + \cdots + a_{2n}x_n &\le b_2 \\ &\vdots \\ a_{m1}x_1 + a_{m2}x_2 + \cdots + a_{mn}x_n &\le b_m \end{aligned}$$

$$x_k \ge 0 \quad k = 1, 2, \dots, n \text{ izanik}$$

Aldagaiak

Helburu-funtzioa (lineala)

Murriztapen-multzoa (lineala)

Aldagaien positibotasuna

Taula 1: Programazio Linealaren enuntziatu estandarra

z helburu-funtzioa minimizatu beharrean, maximizatu ere egin daiteke, eta murriztapen-multzoko inekuazioetan "≤" ikurra beharrean, "≥" edo "=" ikurrak ere jar daitezke.

Bi aldagaiko problemak ebazteko aurreko prozedura egokia da, metodo grafiko deritzo eta hau hiru aldagaiko problemak ebazteko erabil daitekeen arren (3 dimentsioko grafikoekin), ez da egokiena horretarako. Aldagai kopurua gehiago handitzen bada metodo desberdin bat erabiltzeko beharra agertzen da, SIMPLEX metodoa. Metodo grafikoa hiru aldagai baino gehiagoko problemetan ez denez egingarria eta gure proiektuan askoz ere aldagai gehiago daudenez, ordenagailua baliatuko dugu Programazio Linealeko problemak ebazteko.

Programazio Osoari dagokionez, programazio linealaren adar bat da, bere eginkizuna aldagaiak zenbaki oso izatera baldintzatzea da ($x_k \in \mathbb{N}$). Honen ondorioz, soluzio kopurua asko murrizten da, hau da, soluzio eremua diskretu izatera pasatzen da, area mugatu bat izatetik area berberan dauden puntu isolatu multzo bat bihurtzen da eskualde egingarria. Hala ere, nahiz eta soluzio-eremua "txikiagoa" izan, ebazpen-metodoa konplikatuagoa da, orain ez dagoelako bermatuta maximoa/minimoa eremuaren erpinetan egongo dela. Gu R programarekin lagunduko gara Programazio Osoko problemak ere ebazteko.



Irudia 3: Programazio Osoan soluzioen multzoa (finitua)

1.3 R programa

Lehen esan bezala, lan honetan aldagai asko izango ditugunez (herri asko izango ditugulako), ordenagailuarekin lagundu beharko gara derrigor. Guk R programa erabiliko dugu. R programatzeko software libre bat da, hau da, edonor erabil dezakeena eta doakoa.

1.3.1 Rko lpSolve liburutegia

Programazio Osoko problemak ebazteko `lpSolve` liburutegiko `lp(…)` funtzioa dago, zeinak, problemaren enuntziatu estandarretik abiatuta (Taula 1), argumentu hauek eskatzen dituen:

- `direction=`: Helburua zein den, *"max"* edo *"min"* idatziko dugu.
- `objective.in=`: Helburu-funtzioaren koefizienteak dituen bektorea idatziko dugu hemen.
- `const.mat=`: Inekuazio baldintzen ezkerreko koefizienteen matrizea idatziko dugu hemen, desberdindu gabe zeintzuk diren "≤", "≥" eta "=" modukoak.
- `const.dir=`: Inekuazioen norabideekin osaturiko bektorea idatziko dugu hemen.
- `const.rhs=`: Inekuazio baldintzen eskumako koefizienteen bektorea idatziko dugu.
- `int.vec=`: Osoak izan behar duten aldagaien zerrenda duen bektorea idatziko dugu.
- `all.int=`: `TRUE` aldagai guztiak osoak badira eta `FALSE` osoak ez badira.

Programazio Osoko problemak ebatz daitezke funtzio horrekin, baldin eta problema bera enuntziatu estandarraren bitartez adierazteko gauza bagara. Askotan zailagoa izaten da problema bera enuntziatzea, behin enuntziatuta dagoela ebaztea baino (ordenagailuak egiten duelako lan hori).

1.3.2 Rko TSP liburutegia

Zorionez, existitzen dira Programazio Linealeko problema konkretuak ebazteko liburutegi espezifikoak. Adibidez, guk TSP problemari helduko diogunez, existitzen da `TSP` izeneko liburutegia, espresuki sortua izan dena TSP problemak ebatzi ahal izateko (problema Programazio Linealeko enuntziatu estandarrean adierazi behar izan gabe). Funtzio honek asko lagunduko digu modu errazean soluzioak lortzen, hurrengo atalean (1.4 atala) ikusiko dugun moduan.

TSPko problemak ebazteko `TSP` liburutegiko `solve_TSP(…)` funtzioa erabiliko dugu, zeinak argumentu hauek eskatzen dituen:

- `distance_matrix=`: Grafoaren distantzia-matrizea TSP objektu gisa.
- `method=`: Zein metodo erabiliko den TSP problema ebasteko (*"nearest_insertion"*, *"cheapest_insertion"*, *"two_opt"*...)

1.4 Saltzaile Ibiltariaren Problema – Travelling Salesman Problem (TSP)

Saltzaile Ibiltariaren Problema (gaztelaniaz, *Problema del Vendedor Ambulante*, eta, ingelesez, *Travelling Salesman Problem - TSP*) optimizazio problema klasiko bat da, eta honetan oinarrituko gara lana aurrera eramateko. Problema honen helburua hiri multzo bat hartu eta haien arteko distantziak erabiliz herri guztietatik baten pasatzen den ahalik eta ibilbide laburrena ezartzea da. Problema honek aplikazio ugari ditu logistika edo elektronika bezalako arloetan.

TSP probleman hiriak eta haien arteko kostuak osatzen duenari "grafo" deritzogu. Aldi berean, aurretiaz aipatu dugun bezala, grafoaren mutur bakoitzetik (hiri bakoitzetik) baten soilik igarotzen da. Mota honetako zikloei *"Hamiltondar Ziklo"* esaten zaie.

TSP problemak bitan banatu ditzakegu: simetrikoak eta ez simetrikoak. Problema simetrikoa bada, kostu berdina edukiko du Atik Bra joateak edo Btik Arako bidea egiteak. Problema ez simetrikoa bada, gure kasuan bezala, non hasi eta non bukatzeak kostuan eragingo du; izan ere, ez da berdina izango ibilbide berdina egitea ordena aldatuz gero.

Rko aurreko funtzioak erakusteko, hartuko dugu adibidetzat gure proiektua baino eskala txikiagoa den egoera bat. Adibide honetan bost herriren arteko distantziak emanda, bost herri horiek lotzen dituen ibilbiderik laburrena kalkulatuko dugu, TSP problema, alegia.

Ondoren, adibide honen informazioa adierazten dugu bi modu desberdinetan:

- Grafo baten bitartez
- Distantzia-matrizearen bitartez (`solve_TSP(…)` funtzioak behar duena, alegia)



Irudia 4: 5 hiriko grafo ez-simetrikoa

Distantzia matrizea	**A**	**B**	**C**	**D**	**E**
A	0	5	7	9	11
B	6	0	6	7	8
C	7	7	0	9	10
D	8	7	8	0	5
E	9	7	11	12	0

Taula 2: 5 hiriko grafo ez-simetrikoaren distantzia-matrizea

Honen bidez, zutabeko herri batetik aterata errenkadako herrira zenbateko distantzia behar den adierazi daiteke eta aldrebes. Ikusten den bezala, diagonala zeroz osatuta dago, Atik Ara ez dagoelako distantziarik. Matrize honetan aurretiaz adierazitako simetria eza ikusi daiteke, ez dagoelako distantzia bera Btik Ara eta Atik Bra.

Ebatz dezagun orain TSP problema hau bi modu desberdinetan:

1. Programazio Osoko enuntziatu orokorraren bidez, Rko `lpSolve` liburutegia erabilita (oso astuna eta nekeza).
2. TSP problema gisa, Rko `TSP` liburutegia erabilita (oso erraza eta praktikoa).

1.4.1 Programazio Osoko enuntziatu gisa (Rko lpSolve liburutegia)

Nola adierazi daitezke TSP problemaren baldintzak Programazio Linealaren enuntziatu estandarraren bidez? Zorionez, lan hau dagoeneko aztertuta eta ebatzita dago (Bibliografian [1]).

- Aldagai dikotomikoak: $x_{ij} = \begin{cases} 0, & i-tik\ j-rako\ bidea\ egiten\ ez\ bada \\ 1, & i-tik\ j-rako\ bidea\ egiten\ bada \end{cases}$
- Distantzia-matrizea: c_{ij} $(i-tik\ j-rako\ distantzia)$

x_{ij} aldagaiak (i jatorria, j helmuga)

$$\min z = \sum_{i=1}^{n} \sum_{j=1}^{n} c_{ij} x_{ij} \quad non:$$

$\sum_{\substack{j=1 \\ j \neq i}}^{n} x_{ij} = 1$ (hiri bakoitzetik behin eta behin bakarrik atera)

$\sum_{\substack{i=1 \\ i \neq j}}^{n} x_{ij} = 1$ (hiri bakoitzera behin eta behin bakarrik sartu)

$x_{ij} \in \{0,1\}$ $(\Leftrightarrow x_{ij} \in \mathbb{N}\ eta\ x_{ij} \geq 0, minimizatzen\ gaudelako)$

Taula 3: TSPko problemak enuntziatu estandarren bidez formulatzeko modua

Enuntziatu estandarra gure adibide partikularrera egokituz:

$$Aldagaiak: x_{11}, x_{12}, x_{13}, x_{14}, x_{15}, x_{21}, \dots, x_{55}$$

$$\min z = \sum_{i=1}^{5} \sum_{j=1}^{5} c_{ij} x_{ij} = 0x_{11} + 5x_{12} + 7x_{13} + \cdots + 12x_{45} + 0x_{55} \quad non:$$

Hiri bakoitzetik behin eta behin bakarrik ateratzeko:

$$\sum_{\substack{j=1 \\ j \neq i}}^{5} x_{1j} = 1 \Leftrightarrow x_{12} + x_{13} + x_{14} + x_{15} = 1 \text{ (lehen hiritik behin eta behin bakarrik atera)}$$

$$\sum_{\substack{j=1 \\ j \neq i}}^{5} x_{2j} = 1 \Leftrightarrow x_{21} + x_{23} + x_{24} + x_{25} = 1 \text{ (2. hiritik ...)}$$

$$\sum_{\substack{j=1 \\ j \neq i}}^{5} x_{3j} = 1 \Leftrightarrow x_{31} + x_{32} + x_{34} + x_{35} = 1 \text{ (3. hiritik ...)}$$

$$\sum_{\substack{j=1 \\ j \neq i}}^{5} x_{4j} = 1 \Leftrightarrow x_{41} + x_{42} + x_{43} + x_{45} = 1 \text{ (4. hiritik ...)}$$

$$\sum_{\substack{j=1 \\ j \neq i}}^{5} x_{5j} = 1 \Leftrightarrow x_{51} + x_{52} + x_{53} + x_{54} = 1 \text{ (5. hiritik ...)}$$

Hiri bakoitzera behin eta behin bakarrik heltzeko:

$$\sum_{\substack{i=1 \\ i \neq j}}^{5} x_{i1} = 1 \Leftrightarrow x_{21} + x_{31} + x_{41} + x_{51} = 1 \text{ (lehen hirira behin eta behin bakarrik sartu)}$$

$$\sum_{\substack{i=1 \\ i \neq j}}^{5} x_{i2} = 1 \Leftrightarrow x_{12} + x_{32} + x_{42} + x_{52} = 1 \text{ (2. hirira ...)}$$

$$\sum_{\substack{i=1 \\ i \neq j}}^{5} x_{i3} = 1 \Leftrightarrow x_{13} + x_{23} + x_{43} + x_{53} = 1 \text{ (3. hirira ...)}$$

$$\sum_{\substack{i=1 \\ i \neq j}}^{5} x_{i4} = 1 \Leftrightarrow x_{14} + x_{24} + x_{34} + x_{54} = 1 \text{ (4. hirira ...)}$$

$$\sum_{\substack{i=1 \\ i \neq j}}^{5} x_{i5} = 1 \Leftrightarrow x_{15} + x_{25} + x_{35} + x_{45} = 1 \text{ (5. hirira ...)}$$

$$x_{ij} \in \mathbb{N} \; eta \; x_{ij} \geq 0 \; (25 \; baldintza, 25 \; aldagai \; daudelako)$$

Taula 4: 5 hiriko gure adibidearen enuntziatu estandarra

Eta `lpSolve` liburutegiko `lp(…)` funtziorako gure argumentuak prestatzen baditugu:

$$\text{direction} = \text{"}min\text{"}$$

$$\text{objective.in} = (0, 5, 7, 9, 11, 6, \dots, 12, 0)_{1\times 25}$$

$$\text{const.mat} = \overbrace{\begin{matrix} x_{11}, & x_{12}, & x_{13}, & & & \dots & & & , & x_{45}, & x_{55} \end{matrix}}^{} \begin{pmatrix} 0 & 1 & 1 & 1 & 1 & 0 & 0 & 0 & \dots & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & 1 & 0 & 1 & \dots & 0 \\ \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \ddots & \vdots \\ 0 & 0 & 0 & 0 & 1 & 0 & 0 & 0 & \dots & 0 \\ 1 & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & \dots & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & \dots & 0 \\ \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \vdots & \ddots & \vdots \\ 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & 0 & \dots & 1 \end{pmatrix}_{35\times 25}$$

$$\text{const.dir} = (=, =, \dots, =, \geq, \geq, \dots, \geq)_{1\times 35}$$

$$\text{const.rhs} = (1, 1, \dots, 1, 0, 0, \dots, 0)_{1\times 35}$$

$$\text{int.vec} = (1, 2, \dots, 25)$$

$$\text{all.int} = TRUE$$

Taula 5: 5 hiriko gure adibidearen `lp(…)` *funtziorako argumentuak*

Hona hemen Rko kodigoa:

```
# 1. TSP eskuz (Programazio Linealeko buruketa baten moduan sartuta)

install.packages("lpSolve") #Instalatuko dugu lpSolve paketea, "Linear Programming Solve". Bertan
daudelako programazio linealeko enuntziatuak ebazteko funtzioak: guk lp() funtzioa erabiliko dugu.
library(lpSolve)            #Kargatzen dugu instalatutako paketea. Instalakuntza behin egitearekin
nahikoa da, baina paketea kargatu, RStudio irekitzen dugun guztietan. Bestela esango dizu lp() funtzioa
ez duela ezagutzen.

#Sortuko ditugu lehendabizi lp() funtzioak eskatuko dizkigun argumentu bakoitzak.
a <- c(0,5,7,9,11,
     6,0,6,7,8,
     7,7,0,9,10,
     8,7,8,0,11,
     9,7,11,5,0)
A1 <- matrix(c(0,1,1,1,1, 0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0,
               0,0,0,0,0, 1,0,1,1,1, 0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0,
               0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0, 1,1,0,1,1, 0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0,
               0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0, 1,1,1,0,1, 0,0,0,0,0,
               0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0, 0,0,0,0,0, 1,1,1,1,0,

               0,0,0,0,0, 1,0,0,0,0, 1,0,0,0,0, 1,0,0,0,0, 1,0,0,0,0,
               0,1,0,0,0, 0,0,0,0,0, 0,1,0,0,0, 0,1,0,0,0, 0,1,0,0,0,
               0,0,1,0,0, 0,0,1,0,0, 0,0,0,0,0, 0,0,1,0,0, 0,0,1,0,0,
               0,0,0,1,0, 0,0,0,1,0, 0,0,0,1,0, 0,0,0,0,0, 0,0,0,1,0,
               0,0,0,0,1, 0,0,0,0,1, 0,0,0,0,1, 0,0,0,0,1, 0,0,0,0,0),
             nrow=10, ncol=25, byrow=T)   #Lehenengo 10 baldintzak (5 atera eta 5 sartu).
A2 <- diag(1, nrow=25)            #Azken 25 baldintzak (aldagai guztiak positiboak).
A <- rbind(A1, A2)
nor <- c("=","=","=","=","=","=","=","=","=","=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",
        ">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",
        ">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=",">=")
b <- c(1,1,1,1,1,1,1,1,1,1,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0,0)
osoak <- c(1,2,3,4,5,6,7,8,9,10,11,12,13,14,15,16,17,18,19,20,21,22,23,24,25)

#Erabiliko dugun funtzioa da: lp(direction, objective.in, const.mat, const.dir, const.rhs, int.vec,
all.int). Zazpi argumentu eskatzen ditu, aldez aurretik definitu ditugu gehienak dagoeneko.
soluzioa <- lp(direction="min", objective.in = a, const.mat = A, const.dir = nor, const.rhs = b, int.vec
= osoak, all.int = TRUE)

#Emaitzak ikusteko:
soluzioa$solution
```

Eta hemen emaitza:

```
> #Emaitzak ikusteko:
> soluzioa$solution
 [1] 0 1 0 0 0 0 0 0 0 1 1 0 0 0 0 0 0 1 0 0 0 0 0 1 0
```

Hau da, 1 balioarekin atera diren aldagaiak dira: $x_{12}, x_{25}, x_{31}, x_{43}, x_{54}$. Eta, beraz, TSP problema minimizatzen duen ibilbidea da: $1 \longrightarrow 2 \longrightarrow 5 \longrightarrow 4 \longrightarrow 3 \longrightarrow 1$. Eta guztira 33 unitateko distantzia dago.

```
> soluzioa
Success: the objective function is 33
```

1.4.2 TSP problema gisa (Rko TSP liburutegia)

Orain, baliatuko dugu Rko `TSP` liburutegia problema hau ebazteko. Ikusten denez, askoz ere samurragoa da liburutegiko honetako funtzioa erabilita ebaztea.

$$\text{distance\_matrix} = \begin{pmatrix} 0 & 5 & 7 & 9 & 11 \\ 6 & 0 & 6 & 7 & 8 \\ 7 & 7 & 0 & 9 & 10 \\ 8 & 7 & 8 & 0 & 11 \\ 9 & 7 & 11 & 5 & 0 \end{pmatrix}$$
$$\text{method} = \text{"}two\_opt\text{"}$$

Taula 6: 5 hiriko gure adibidearen `solve_TSP(…)` *funtziorako argumentuak*

Hona hemen Rko kodigoa:

```
# 2. TSP zuzenean (TSP buruketak ebazteko espresuki sortutako funtzioa erabiliz)

install.packages("TSP")  #Instalatuko dugu TSP paketea, "Travelling Salesman Problem". Bertan daudelako
TSP problemak ebazteko funtzioak: guk solve_TSP() funtzioa erabiliko dugu.
library(TSP)             #Kargatzen dugu instalatutako paketea. Instalakuntza behin egitearekin nahikoa
da, baina paketea kargatu, RStudio irekitzen dugun guztietan. Bestela esango dizu solve_TSP() funtzioa ez
duela ezagutzen.

distance_matrix <- matrix(c(0,5,7,9,11,
                            6,0,6,7,8,
                            7,7,0,9,10,
                            8,7,8,0,11,
                            9,7,11,5,0),
                          nrow = 5, byrow = TRUE)

#Erabiliko dugun funtzioa da: solve_TSP(tsp, method). Bi argumentu behar ditu: (1) tsp objektua eta (2)
erabiliko den metodoa (hau aukeran).
soluzioa2 <- solve_TSP(ATSP(distance_matrix), method="two_opt")

#Emaitzak ikusteko:
as.integer(soluzioa2)   # Ibilbidea
tour_length(soluzioa2)  # Emaitza (edo ibilbidearen luzera)
```

Eta soluzioa aurrekoaren berdina da:

```
> #Emaitzak ikusteko:
> as.integer(soluzioa2)   # Ibilbidea
[1] 3 1 2 5 4
> tour_length(soluzioa2)  # Emaitza (edo ibilbidearen luzera)
[1] 33
```

Hala ere, metodo heuristikoak erabiltzen dituenez, beti ez du emaitza berdina ematen, eta batzuetan ez du emaitza optimoa aurkitzen (baina bai “oso ona” den bat):

```
> #Emaitzak ikusteko:
> as.integer(soluzioa2)   # Ibilbidea
[1] 2 1 3 5 4
> tour_length(soluzioa2)  # Emaitza (edo ibilbidearen luzera)
[1] 35
```

2. Datu-bilketa

2.1 Datu-basea eraiki

Gure datu-basean Euskal Herriko 2.500 biztanlerik gorako udalerriak hartuko ditugu kontuan. Horretarako estatistika-iturri ofizialetara jo dugu:

- EAEkoak (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba): EUSTAT (Bibliografian [2])
- Nafarroa: NASTAT (Bibliografian [3])
- Iparraldekoak (Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa): INSEE (Bibliografian [4])

Horrez gain, begiratu dugu banan-banan Korrikaren azken 3 edizioak (22. edizioa 2022an, 23. edizioa 2024an eta 24. edizioa aurten) herri bakoitzetik igaro den edo ez.

Herria	Probintzia	Biztanleria	Korrika 22	Korrika 23	Korrika 24	Herria	Probintzia	Biztanleria	Korrika 22	Korrika 23	Korrika 24
Bilbao	Bizkaia	346.933	☑	☑	☑	Pasaia	Gipuzkoa	16.767	☑	☑	☑
Vitoria-Gasteiz	Araba	253.956	☑	☑	☑	Zizur Nagusia	Nafarroa	16.124	☑	☑	☑
Pamplona / Iruña	Nafarroa	207.777	☑	☑	☑	Ermua	Bizkaia	15.558	☑	☑	☑
Donostia/S.Sebastián	Gipuzkoa	183.388	☑	☑	☑	Azpeitia	Gipuzkoa	15.431	☑	☑	☑
Barakaldo	Bizkaia	100.200	☑	☑	☑	Andoain	Gipuzkoa	14.732	☑	☑	☑
Getxo	Bizkaia	75.015	☑	☑	☑	Bergara	Gipuzkoa	14.725	☑	☑	☑
Irun	Gipuzkoa	60.665	☑	☑	☑	Don. Lohizune	Lapurdi	14.690	☑	☑	☑
Baiona	Lapurdi	53.312	☑	☑	☑	Estella-Lizarra	Nafarroa	14.329	☑	☑	☑
Santurtzi	Bizkaia	46.111	☑	☑	☑	Sopelana	Bizkaia	14.017	☑	☑	☑
Portugalete	Bizkaia	45.150	☑	☑	☑	Beasain	Gipuzkoa	13.915	☑	☑	☑
Angelu	Lapurdi	42.288	☑	☑	☑	Aranguren	Nafarroa	12.787	☑	☑	☑
Basauri	Bizkaia	40.323	☑	☑	☑	Azkoitia	Gipuzkoa	12.084	☑	☑	☑
Errenteria	Gipuzkoa	39.779	☑	☑	☑	Etxebarri	Bizkaia	11.901	☑	☑	☑
Tudela	Nafarroa	38.685	☑	☑	☑	Arrigorriaga	Bizkaia	11.680	☑	☑	☑
Leioa	Bizkaia	32.495	☑	☑	☑	Elgoibar	Gipuzkoa	11.659	☑	☑	☑
Durango	Bizkaia	30.165	☑	☑	☑	Trapagaran	Bizkaia	11.630	☑	☑	☑
Sestao	Bizkaia	28.019	☑	☑	☑	Oñati	Gipuzkoa	11.445	☒	☑	☑
Eibar	Gipuzkoa	27.118	☑	☑	☑	Berriozar	Nafarroa	11.201	☑	☑	☑
Biarritz	Lapurdi	25.810	☑	☑	☑	Tafalla	Nafarroa	10.778	☑	☑	☑
Galdakao	Bizkaia	24.788	☑	☑	☑	Antsoain	Nafarroa	10.641	☑	☑	☑
Erandio	Bizkaia	24.209	☑	☑	☑	Urruña	Lapurdi	10.594	☑	☑	☑
Zarautz	Gipuzkoa	23.464	☑	☑	☑	Oiartzun	Gipuzkoa	10.473	☑	☑	☑
V. Egués / Eguesibar	Nafarroa	22.443	☑	☑	☑	Amurrio	Araba	10.442	☑	☑	☑
Arrasate/Mondragón	Gipuzkoa	22.251	☑	☑	☑	Ordizia	Gipuzkoa	10.398	☑	☑	☑
Burlada / Burlata	Nafarroa	21.078	☑	☑	☑	Villava / Atarrabia	Nafarroa	10.016	☑	☑	☑
Hernani	Gipuzkoa	20.428	☑	☑	☑	Zumaia	Gipuzkoa	10.001	☑	☑	☑
Tolosa	Gipuzkoa	20.048	☑	☑	☑	Zumarraga	Gipuzkoa	9.568	☑	☑	☑
Lasarte-Oria	Gipuzkoa	19.808	☑	☑	☑	Abanto Zierbena	Bizkaia	9.353	☑	☑	☑
Barañáin / Barañain	Nafarroa	19.606	☑	☑	☑	Bokale	Lapurdi	8.934	☒	☒	☒
Amorebieta-Etxano	Bizkaia	19.229	☑	☑	☑	Corella	Nafarroa	8.712	☑	☒	☑
Laudio/Llodio	Araba	18.193	☑	☑	☑	Ortuella	Bizkaia	8.644	☑	☑	☑
Hendaia	Lapurdi	18.074	☑	☑	☑	Elortzibar	Nafarroa	8.469	☑	☑	☑
Mungia	Bizkaia	17.772	☑	☑	☑	Berango	Bizkaia	8.458	☑	☑	☑
Bermeo	Bizkaia	17.104	☑	☑	☑	Legazpi	Gipuzkoa	8.377	☒	☒	☒
Hondarribia	Gipuzkoa	16.960	☑	☑	☑	Cintruénigo	Nafarroa	8.333	☑	☒	☑
Gernika-Lumo	Bizkaia	16.889	☑	☑	☑	Zalla	Bizkaia	8.257	☑	☑	☑

Herria	Probintzia	Biztanleria	Korrika 22	Korrika 23	Korrika 24	Herria	Probintzia	Biztanleria	Korrika 22	Korrika 23	Korrika 24
Ondarroa	Bizkaia	8.144	☑	☑	☑	Ugao-Miraballes	Bizkaia	4.181	☑	☑	☑
Baztan	Nafarroa	7.863	☑	☑	☑	Cascante	Nafarroa	4.131	☒	☑	☒
Abadiño	Bizkaia	7.800	☑	☑	☑	Orkoien	Nafarroa	4.097	☒	☒	☑
Balmaseda	Bizkaia	7.773	☑	☑	☑	Olite / Erriberri	Nafarroa	4.087	☒	☒	☑
Huarte / Uharte	Nafarroa	7.737	☑	☑	☑	Ibarra	Gipuzkoa	4.076	☑	☑	☑
Altsasu / Alsasua	Nafarroa	7.710	☑	☑	☑	Cizur	Nafarroa	3.940	☑	☑	☑
Uztaritze	Lapurdi	7.684	☑	☑	☑	Zestoa	Gipuzkoa	3.908	☑	☑	☑
Bidarte	Lapurdi	7.674	☑	☒	☑	Iurreta	Bizkaia	3.830	☑	☑	☑
Astigarraga	Gipuzkoa	7.665	☑	☑	☑	Iruña Oka	Araba	3.780	☑	☑	☑
Berriobeiti	Nafarroa	7.631	☑	☒	☑	Soraluze	Gipuzkoa	3.765	☑	☑	☑
Hazparne	Lapurdi	7.615	☑	☑	☑	Bera	Nafarroa	3.763	☑	☑	☑
Derio	Bizkaia	7.535	☑	☑	☑	Azagra	Nafarroa	3.756	☑	☑	☑
Elorrio	Bizkaia	7.425	☑	☑	☑	Ribaforada	Nafarroa	3.701	☒	☒	☒
Muskiz	Bizkaia	7.282	☑	☑	☑	Oyón-Oion	Araba	3.688	☒	☒	☑
Senpere	Lapurdi	7.238	☑	☑	☑	Lemoa	Bizkaia	3.640	☑	☑	☑
Lekeitio	Bizkaia	7.186	☑	☑	☑	Milagro	Nafarroa	3.639	☑	☑	☑
Aretxabaleta	Gipuzkoa	7.183	☑	☑	☑	Arrangoitze	Lapurdi	3.588	☒	☒	☒
Urretxu	Gipuzkoa	6.795	☑	☑	☑	Mendavia	Nafarroa	3.535	☒	☒	☒
Güeñes	Bizkaia	6.728	☑	☑	☑	Zamudio	Bizkaia	3.384	☑	☑	☑
Kanbo	Lapurdi	6.715	☑	☑	☑	Basusarri	Lapurdi	3.317	☒	☒	☒
Usurbil	Gipuzkoa	6.485	☑	☑	☑	Maule-Lextarre	Zuberoa	3.216	☑	☑	☑
San Adrián	Nafarroa	6.481	☑	☑	☑	Alegría-Dulantzi	Araba	3.172	☑	☑	☑
Urnieta	Gipuzkoa	6.294	☑	☑	☑	Cortes	Nafarroa	3.160	☒	☒	☒
Orio	Gipuzkoa	6.197	☑	☑	☑	Villafranca	Nafarroa	3.077	☑	☑	☒
Lezo	Gipuzkoa	6.188	☑	☑	☑	Zaldibar	Bizkaia	3.051	☑	☑	☑
Gorliz	Bizkaia	6.105	☑	☑	☑	Leitza	Nafarroa	3.011	☑	☑	☒
Urduliz	Bizkaia	6.036	☑	☑	☑	Aoiz / Agoitz	Nafarroa	3.007	☒	☑	☒
Peralta / Azkoien	Nafarroa	6.003	☒	☑	☒	Urketa	Lapurdi	3.006	☒	☒	☒
Ziburu	Lapurdi	5.957	☑	☑	☑	Alonsotegi	Bizkaia	2.970	☒	☒	☒
Lazkao	Gipuzkoa	5.888	☑	☑	☑	Milafranga	Lapurdi	2.957	☑	☒	☑
Hiriburu	Lapurdi	5.779	☑	☑	☒	Getaria	Gipuzkoa	2.931	☑	☑	☑
Villabona	Gipuzkoa	5.778	☑	☑	☑	Gares	Nafarroa	2.930	☑	☑	☑
Agurain/Salvatierra	Araba	5.374	☑	☑	☑	Marcilla	Nafarroa	2.921	☑	☑	☒
Deba	Gipuzkoa	5.364	☑	☑	☑	Beskoitze	Lapurdi	2.920	☒	☒	☒
Mugerre	Lapurdi	5.353	☒	☒	☒	Andosilla	Nafarroa	2.913	☑	☑	☑
Mutriku	Gipuzkoa	5.283	☑	☑	☑	Zizurkil	Gipuzkoa	2.904	☑	☑	☑
Markina-Xemein	Bizkaia	5.056	☑	☑	☑	Ayala/Aiara	Araba	2.882	☑	☑	☑
Lodosa	Nafarroa	4.931	☑	☑	☑	Esteribar	Nafarroa	2.877	☒	☒	☒
Sangüesa / Zangoza	Nafarroa	4.862	☑	☑	☑	Bakio	Bizkaia	2.868	☑	☑	☑
Sondika	Bizkaia	4.651	☑	☑	☑	Caparroso	Nafarroa	2.861	☑	☑	☑
Azkaine	Lapurdi	4.561	☑	☑	☑	Sopuerta	Bizkaia	2.827	☑	☑	☑
Berriz	Bizkaia	4.541	☑	☑	☑	Karrantza Harana	Bizkaia	2.741	☒	☒	☒
Plentzia	Bizkaia	4.528	☑	☑	☑	Sara	Lapurdi	2.736	☑	☑	☑
Castejón	Nafarroa	4.473	☑	☑	☑	Lehuntze	Lapurdi	2.736	☒	☒	☑
Viana	Nafarroa	4.413	☒	☒	☑	Orozko	Bizkaia	2.736	☒	☒	☑
Igorre	Bizkaia	4.252	☑	☑	☑	Lesaka	Nafarroa	2.716	☑	☑	☑
Urduña-Orduña	Bizkaia	4.244	☒	☑	☒	Ablitas	Nafarroa	2.669	☒	☑	☒
Murchante	Nafarroa	4.239	☒	☒	☒	Funes	Nafarroa	2.558	☒	☑	☒
Eskoriatza	Gipuzkoa	4.227	☑	☑	☑	Ayegui / Aiegi	Nafarroa	2.550	☑	☑	☑
Beriáin	Nafarroa	4.197	☒	☒	☑	Etxarri Aranatz	Nafarroa	2.545	☑	☑	☑
						*Atharratze	Zuberoa	611	☒	☒	☑

Taula 7: Euskal Herriko 2.500 biztanletik gorako udalerriak Korrikaren azken hiru edizioetan

2.2 Koordenatuak R bidez

Udalerri bakoitzaren GPS koordenatuak behar izango ditugu, eta horiek lortzeko badira hainbat koordenatu-bilatzaile; esate baterako, honako hau (https://www.coordenadas-gps.com):

Irudia 5: https://www.coordenadas-gps.com/convertidor-de-coordenadas-gps helbideko adibidea

173 herriren koordenatuak jaso behar ditugunez, nekeza samarra izango litzateke den-denak eskuz kalkulatzea; beraz, adimen artifizialari (Chat GPTri) laguntza eskatu diogu Exceletik jasotako herri-zerrenda batetik, latitude eta longitudea kalkulatzeko.

```
library(xlsx) # Excela erabiltzeko Rko liburutegia.

#read.xlsx(...) funtzioak bi argumentu behar ditu: 1) Ireki nahi den artxiboaren helbidea; 2) Excelaren
zein pestañatik hartu datuak.
herriak <- read.xlsx("C:\\Users\\Hezkuntza\\Desktop\\Herriak_Korrika1.xlsx",1)

#ChatGPTren kodigoa. nominatim.openstreetmap.org webgunetik jasotzen ditu herrien koordenatuak.

library(httr)
library(jsonlite)
library(dplyr)

geocode_nominatim <- function(place){
  url <- paste0(
    "https://nominatim.openstreetmap.org/search?q=", URLencode(place),"&format=json&limit=1")
  res <- fromJSON(url)
  if(length(res) == 0){
    return(data.frame(lat = NA, lon = NA))}
  data.frame(lat = as.numeric(res$lat), lon = as.numeric(res$lon))}

coords <- lapply(herriak$Udalerriak, geocode_nominatim)
coords <- bind_rows(coords)

herriak_geo <- bind_cols(herriak, coords)
```

Eta emaitza jaso dugu **herriak_geo** izeneko aldagaian:

```
> herriak_geo
          Udalerriak      lat        lon
1              Bilbao 43.26300 -2.9350039
2             Gasteiz 42.84651 -2.6724025
3               Iruña 42.81820 -1.6440089
4            Donostia 43.32242 -1.9838889
5           Barakaldo 43.29492 -2.9887476
6               Getxo 43.34312 -3.0078627
...

171             Aiegi 42.65883 -2.0369908
172   Etxarri Aranatz 42.90758 -2.0648822
173       Atharratze 43.11625 -0.8645311
```



Irudia 6: 173 herriak EHko mapan kokatuta (`leaflet(…)` funtzioaren bitartez)

2.3 Distantzia-matrizeak R bidez

1.4.2 atalean (TSP problemak R bidez ebatzi) ikusi dugun moduan, distantzia-matrize batetik abiatuta oso erraza da TSP problemak ebaztea Rko `TSP` liburutegiko `solve_TSP(…)` funtzioaren bitartez.

Kontua da guk behar ditugula bi herriren arteko distantziak, baina ez lerro zuzenean, baizik eta bi herri horiek lotzen dituen errepideetatik eginda. Honek behartzen gaitu nabigazio-rutak sortzen dituen plataforma bat erabiltzen (GOOGLE MAPSen antzekoa) eta guk HERE TECHNOLOGIES baliabidea erabiliko dugu (aurrekoaren alternatiba).

